



Zakila duten neskak eta bulba duten mutilak

Haurren transexualitatea akonpainatzearen garrantzia

Batzuetan pertsona baten sexua (sentitzen duen sexua) ez dator bat jaiotzean genitalen arabera ezarritako sexuarekin, eta egoera horri transexualitatea deitzen zaio.

Gaur egun daukagun jakintzarekin, baieztatu dezakegu transexualitatea ez dela gaixotasun edo nahasmen bat, giza aniztasunaren aldaera bat baizik.

Guztiok ditugu sexu bien ezaugarriak. Ohikoena ez bada ere, garuneko sexuazioak alde batera jo dezake eta genitalen sexuazioak bestera. Hori da, hain zuzen, zakila duten nesken eta bulba duten mutilen kasua.

Ikerketa “ofizialen” arabera 10.000 pertsonatik 1 dago egoera horretan; ikerketa berriagoek, ordea, 1.000 pertsonatik 1eko datua ematen dute¹.

Badakigu jakin gizon edo emakume garela, mutil edo neska, eta ez genitalengatik preseski. Identitatea ez dago hankartean, buruan baizik. Badaude, egiazki, zantzu zientifikoak ondorioztatzeko identitatea *estria terminalis* izeneko nukleo limbiko batean egon daitekeela², jaiotzean lehen ezarrita gelditzen dena.

Dena den, mutil edo neska baten identitatea ziurtasunez ezagutzeko, haurrak hizkuntza menderatzen duen arte itxaron behar da. 2 urteren bueltan, bere burua izendatzeko gaitasuna lortzen duenean, zein sexurekin identifikatzen den adierazten du; zein sexukoa den alegia: “mutila naiz” edo “neska naiz”.

Eta hori ez da hautatzen edo lehenesten. Barruak agintzen du.

Identitate horren arabera eraikiko da nortasuna. Eta nortasun hori genero-erolek, espektatibek eta mutilak nolakoak eta neskak nolakoak “izan behar” diren ezartzen duten arau sozialek moldatzen dute, askotan modu bortitzez batean. Hala ere, haur hauen sexu-identitateak indar handiz gainditzen du kanpotik ezarritako generoaren inposizioa, nahiz eta etxean ere gure seme-alabak genitalengatik suposatutako sexuaren arabera hazi izan ziren. Argi geratzen da, hala, jokabide sozialek ez dutela identitatea ezartzen.

Jaiotzean genitalei kasu eginda sexu okerra ezarri zitzaieen haur askori, ukatu egiten zaie berez diren neska moduan edo mutil moduan bizitzeko aukera, transexualitatearen errealitatea ezagutzen ez denean.

Egoera honetan dagoen haurrak behar duena zera da: bere hurbilekoek berari entzutea, bera den moduan onartzea eta maitatzea (gainontzeko guztiek behar duten moduan, noski), eta bere bizitza izango den bidaia horretan alboan izatea, bere egoeratik izan ditzakeen berezko zailtasunetan laguntzeko prest.

Ikerketek argi eta garbi erakusten dute alde handia dagoela transexualitate egoeran dagoen umearen alboan egotetik, bere identitatea ukatzeraz.

1 “The Incidence and Prevalence of SRS among US Residents” Horton, 2008

2 “Male-to-female transsexuals have female neuron numbers in a limbic nucleus” Kruijver et al., 2000

Pertsona heldu transexualak galdutako haurtzaroz mintzo dira euren testigantzetan. Eta ikaragarria da jakitea haurtzaroan identitatea ukatu zitzaien heldu transexualen suizidioen saiakera-tasa % 41ekoa dela³ (populazio osoarena % 1,6koa izanik).

Aitzitik, itxaropenez bete gaitu gazte transexualekin berriki egindako ikerketa baten emaitzak; kasu honetan, haien identitatea errespetatu zuten familiek, haien ondoan egon eta babestu egin zituzten, eta nerabezaroan blokeorako tratamendua eskaini zitzaien. Ikerketa honetan egiaztatu da, bai bizi eta zoriontasun kalitate indizeak, bai antsietate indizeak eta bakoitzaren gorputzaren itxuragatik dituzten kezkak, bere adin bereko populazio ez transexualaren antzekoak edo hobeak direla⁴.

Ez dugu nahi gure seme-alabek haurtzaroa gal dezaten. Ez dugu nahi suizidioaren itzal iluna haien etorkizunean.

Diren bezala onartuak eta errespetatuak izatea nahi dugu. Euren burua sentitzen duten moduan bizi ahal izatea, gainontzekoen moduan jolastu, ikasi, hazi eta garatu ahal izatea.

Irribarre egin ahal dezaten. Bizi ahal daitezen. Izan ahal daitezen.

Horretarako, haien bidaide eta laguntzaile izatea erabaki dugu gurasook.

Eta eskutik behar ditugu abentura honetan hezkuntza komunitateak, osasun arloko profesionalak eta inguru sozial osoa.

Gure seme-alaben bizitza baitago jokoan.



Aingeru Mayor
Sexologoa
CHRYSALLIS Euskal Herria,
Adingabe Transexualen Familien Elkartearen
lehendakaria

3 "Injustice at Every Turn. A Report of the National Transgender Discrimination Survey", Grant et al., 2011

4 "Young Adult Psychological Outcome After Puberty Suppression and Gender Reassignment", Vries et al., 2014